ANTE LA OFENSIVA BURGUESA

# VIVIENDA GRATUITA, UNIVERSAL Y DE CALIDAD.

SINDICATO DE VIVIENDA DE GASTEIZ

BURGESIAREN ERASOALDI POLITIKOAREN AURREAN

osasuna, egia, askatasun politikoak, langile antolakuntza

ANTE LA OFENSIVA BURGUESA

# VIVIENDA GRATUITA, UNIVERSAL Y DE CALIDAD.

## 1. LA PROBLEMÁTICA DE LA VIVIENDA, UN MAL AHORA AGRAVADO

Quedate en casa" nos implora la burguesía, pero, nuestros compañeros son enviados a diario a su puesto de trabajo sin nada más que un par de consejos sanitarios. Nos hablan de compromisos morales, pero ahora más que nunca el teléfono del enorme ejército de reserva suena, pidiendo sustituciones en residencias o empresas de limpieza. Nos piden solidaridad con una sociedad en "abstracto" mientras vulneran nuestro derecho a huelga y nos imponen servicios del 100%. Nos enseñan lo hermoso que es quedarse en el hogar, los que no han tenido que dormir hacinados en un polideportivo, los que no han tenido que racionar una solo plato del comedor social para todo el día. Nos recomiendan *yoga* en casa, *mindfoolness* y *tai chi,* aquellos que no se muerden las uñas leyendo los titulares de la prensa cual si fueran sus propios epitafios.

"Quedate en casa" nos implora la burguesía; no os preocupéis, la política ya la hacen ellos. La burguesía, con todos sus partidos y sindicatos a sueldo escenifican la restauración de los derechos y libertades suspendidos a golpe de decreto. Como si de un juego de la más compleja aritmética se tratase, los tecnócratas del capital echan cuentas y toman medidas salomónicas. Pero no todo lo que brilla es progresismo.

La problemática de la vivienda es ahora, un mal ahora agravado. En situaciones como esta, la forma más tiránica del capital entra en escena y las condiciones de vida del proletariado se recrudecen. Aumentan las formas de violencia directa y los lazos de dependencia más atroces; la violencia machista, el autoritarismo de los padres y madres sobre sus hijos, la extorsión del casero que se aferra a su pequeña

propiedad... Para paliar las serias dificultades que afrontará la clase trabajadora, el gobierno habla de aplazamientos y moratorias, y sólo tímidamente se refiere a las suspensiones. Hace días que se debiera haber tomado una decisión firme en torno a los alquileres, sin embargo, y gracias a la incursión del *lobby* de especuladores Asval, ésta se aplazará *ad calendas graecas*. Esta asociación de grandes y pequeños propietarios ejercerá presión para que medidas como la prohibición de la subida de alquileres durante seis meses, queden en papel mojado. Mientras tanto, fondos buitre como Lazora muestran su cara mas filántropa y adelantándose a las decisiones del gobierno, anuncian una moratoria en los pagos de alquileres. Pero no confundamos la piedad con la astucia, y es que en un periodo de crisis como el que viene, estos fondos serán los que soportarán las pérdidas y adquirirán las propiedades de los pequeños propietarios, ahogados por las deudas de los impagos de sus inquilinos.

Pero todas estas medidas – aprobadas o no – difícilmente podrán aplacar los estragos de la crisis y no harán mas que estirarla en el tiempo y profundizar en ella. El Estado ha dirigido 100.000 millones de euros a entidades privadas y 17.000 millones los dirigirá a la "amortiguación social" de la clase trabajadora. Más allá de lo escandaloso del porcentaje, que deja claro que no se trata de una medida salomónica, llama la atención la forma en la que se ha obtenido este dinero. Pues bien, exceptuando las partidas sociales que se han sacado de fondos públicos, la liquidez se ha conseguido a través del crédito privado, *ergo*, endeudándose. ¿Y cómo pagará el Estado esta enorme deuda? Fácil, será la clase obrera quien pague la deuda contraída por la burguesía, mediante reestructuraciones en ciertos sectores productivos y probablemente, intentando ampliar los márgenes de extracción de plusvalor reorganizando la explotación de la fuerza de trabajo. Dicho de otra manera, este endeudamiento podría derivar en la profundización del proceso de proletarización que afectará a todas las capas de la clase trabajadora, aunque no de igual manera. Y es aquí donde el círculo del discurso burgués se cierra: los millones de euros que dicen ser para mejorar nuestras condiciones inmediatas, saldrán a costa de empeorar nuestras condiciones en el medio plazo. Junto con la crisis sanitaria, se avecina una ofensiva burguesa organizada en todos los frentes, ante la cual el proletariado se encuentra desorganizado, sin programa ni dirección estratégica claras. Frente a la reorganización social, la burguesía se apresura por ser quién ostente el mejor puesto e intenta sustituir los viejos pactos sociales; desgraciadamente, sin una posición organizada fuera de este pacto social, lo consigue mediante amplios consensos.

## 2. FRENTE A LA OFENSIVA BURGUESA, VIVIENDA GRATUITA, UNIVERSAL Y DE CALIDAD

Frente a esta ofensiva burguesa en ciernes, nosotros reivindicamos vivienda gratuita, universal y de calidad. No como un horizonte idealista que pretenda ablandar corazones, sino como un objetivo estratégico fundamentado en la teoría y el conocimiento de las leyes de funcionamiento del capitalismo. Como sabemos, bajo el despotismo capitalista toda la división del trabajo social es mediada por la compra-venta de mercancías; por lo tanto, la totalidad del modo de producción capitalista se fundamenta en la ley del valor y de la competencia. Además, a pesar de la falsa universalidad burguesa que predica la libertad de venta en el mercado, el acceso al mismo está condicionado por la capacidad adquisitiva (el dinero que se tiene en el bolsillo), la cual está determinada en cada caso por el lugar que se ocupa dentro de la misma división social del trabajo. Dicho de otra forma, la ley del valor y de la competencia tienen total soberanía en el sistema capitalista. Este carácter esencial del capitalismo condiciona y da forma a la cuestión de la vivienda, la cual se presenta en la forma social más pura de éste, es decir, en forma de mercancía. Entendemos entonces que sólo la vivienda universal, gratuita y de calidad puede plantearse frente al capital en contradicción real a la ley del valor y cómo única forma de garantizar la reproducción social de forma igualitaria y universal. Nos explicamos:

Sólo obteniendo la universalidad y gratuidad, la vivienda dejará de ser intercambiada en el mercado, es decir, dejará de ser una mercancía y por lo tanto, dejará de estar regulada, de forma efectiva, por las leyes de la competencia. Pero, además, añadimos que esta vivienda ha de ser "de calidad" y ésta no es una floritura casual. En el sistema capitalista, a nivel de simple hipótesis, podrían darse las condiciones para garantizar vivienda gratuita y universal, pero siempre habría diferencias en la cualidad de ésta. Dependiendo, por ejemplo, del lugar que tiene cada trabajador en la producción, se obtendrían viviendas de mayor o menor calidad y además, la vivienda seguiría siendo parte del salario, aunque de forma indirecta. Dicho de otra forma, el abaratamiento o la simple gratuidad de los bienes necesarios para la reproducción del trabajador conduciría a la devaluación de la fuerza de trabajo, y por ende, a una profundización en la reproducción del sistema capitalista. Por ello, además de exigir la gratuidad y universalidad de los bienes, pretendemos también su calidad, porque es la única forma en la que puede entrar en contradicción con las leyes del valor

y de la competencia, que empujan la fuerza-trabajo a venderse a menor precio reproduciendo a escala cada vez mayor la división del trabajo capitalista.

Además, afirmamos que es la única forma de garantizar la reproducción social de forma igualitaria porque sólo la universalidad y la igualdad que se fundarán en las luchas del proletariado son verdaderamente universalizables. De hecho, la igualdad y la universalidad burguesas, es decir, la presunta libertad de toda persona a participar de la riqueza social mediante el mercado, son falsas y parciales, y no hacen mas que reflejar en forma éticamente distorsionada la ley del valor, ocultando así las contradicciones de clase que fundamentan la sociedad capitalista. Al contrario, la universalidad proletaria no reivindica un acceso igual al mercado capitalista, sino un acceso igual a las condiciones de vida como premisas para la libertad colectiva e individual. Por ello, ahora más que nunca, toca reivindicar la vivienda gratuita, universal y de calidad.

## 3. MEJORAS TÁCTICAS PARA EL PROLETARIADO

Este horizonte estratégico, además, está íntimamente relacionado con la conciencia de clase. La conciencia de clase es el profundo entendimiento del lugar que ocupamos en una sociedad dividida en clases y la comprensión de que la única forma de superación real de las miserias de este sistema, es la organización positiva de la heterogeneidad de la vida, tras un proceso de abolición y sustitución de las formas sociales actuales. Sin embargo, la conciencia de clase no se adquiere a través del momento teórico, sino a través de un proceso dialéctico que conecta constantemente la experiencia de lucha con la necesidad de comprender y superar los límites de la misma. El proletariado, ahora mas que nunca, necesita de experiencia de lucha que lo guíe a conocer per se los límites de la organización. Ha de darse de bruces con el idealismo reformista, ha de errar, comprender lo fallido y sobre todo, ha de organizarse de forma independiente para acometer su gran empresa.

Este proceso de toma de conciencia, que es, sustancialmente, un proceso organizativo, deberá crear las condiciones necesarias para alcanzar el horizonte estratégico mencionado. Parte de estas condiciones se darán mediante la obtención de reformas concretas, cuyo objetivo será mejorar las condiciones de vida del proletariado en lo inmediato, y aumentar su experiencia de lucha. Corremos el riesgo, sin embargo, de confundir el uso de la reforma con la vía del reformismo. No debemos

caer en el letargo de quienes pretenden, mediante la acumulación de reformas, tornar un orden de clase violento.

Dicho esto, entendemos que las reivindicaciones concretas son necesarias, deben ser guías para la acción que cobren sentido pleno en las diferentes experiencias de lucha que iniciemos. En demasiadas ocasiones, estas demandas pierden su función táctica y se convierten en sí mismas en un objetivo. Creemos que es tarea de las diferentes organizaciones de clase, abandonar las prácticas populistas y realizar un verdadero ejercicio de pedagogía y argumentación, que haga comprender a las masas trabajadoras las funciones tácticas de estas reivindicaciones. Si no realizamos esta tarea, difícilmente podremos percatarnos de los límites de nuestra acción y nos sumergiremos en un bucle inagotable de denuncia-reforma.

En cuanto al Sindicato de Vivienda de Gasteiz, creemos necesario establecer una tabla mínima de reivindicaciones por las razones anteriormente mencionadas. Además, consideramos que los objetivos establecidos por las diferentes organizaciones que trabajan la problemática de la vivienda en nuestro ámbito geográfico son absolutamente insuficientes; por ser peticiones a mínimos y por obviar la realidad socio-económica del proletariado. Por ello, presentamos ciertas líneas de trabajo concretas, que no son más que guías para las luchas de la fase próxima, por las condiciones de vida del proletariado en cuanto a la vivienda:

- Suspensión de alquileres de propiedades Municipales, en manos de Diputación, del Gobierno Vasco, además de los alquileres gestionados por Alokabide y Etxebide.

- Suspensión del pago de suministros básicos (agua, luz, gas...)

- Reducción de los costes de vida: trasporte público gratuito, abaratamiento de los bienes de primera necesidad y pretensión de su calidad etc.

- Vivienda gratuita y de calidad para personas sin ningún tipo de recursos.

- Regulación en el precio del alquiler en cuanto a pequeños propietarios y entidades privadas

# 4. AUTODEFENSA PROLETARIA COMO ÚNICA GARANTÍA

Pero esto no es suficiente. Ante la perspectiva de la ofensiva burguesa, a la clase trabajadora sólo le queda acatar sumisamente el nuevo orden social que muy probablemente, vendrá de la mano de un proceso de proletarización que empeorará las condiciones de vida de toda la clase trabajadora y acarreará serias restricciones en cuanto a sus libertades políticas y civiles. Mientras tanto, los progresistas, atados a sus compromisos partidistas celebran haber conseguido el 17% de la deuda; pero lo que hoy sale barato, mañana sale caro.

Nosotros les miramos, impotentes, conscientes de nuestras capacidades organizativas actuales, pero henchidos de convicción y dolor. Ante la barbarie capitalista la solidaridad de clase se abre paso, pero es momento de armar esa espontaneidad de herramientas organizativas y teóricas. Es momento de organizar la autodefensa de clase como única garantía de supervivencia, como forma de poder antagónica e independiente. Tomemos el control de nuestras vidas.

Desde el Sindicato de Vivienda de Gasteiz, seguiremos trabajando en este interminable proceso acumulativo de desarrollo de capacidades por y para la clase trabajadora. Queremos lo imposible para la burguesía – vivienda gratuita, universal y de calidad – y lo único posible para la organización comunista de la vida.

*¡Nada es imposible, todo se organiza!*

En Gasteiz, 28 de marzo de 2020.

BURGESIAREN OFENTSIBAREN AURREAN

# DOAKO ETXEBIZITZA, UNIBERSALA ETA KALITATEZKOA.

ETXEBIZITZA SINDIKATUA GASTEIZ

BURGESIAREN ERASOALDI POLITIKOAREN AURREAN

osasuna, egia, askatasun politikoak, langile antolakuntza

OFENTSIBA BURGESAREN AURREAN

# DOAKO ETXEBIZITZA, UNIBERSALA ETA KALITATEZKOA.

## 1. ETXEBIZITZAREN PROBLEMATIKA, ORAIN LARRIAGOTUTAKO GAITZ BAT

“Etxean geratu zaitez“ erregutzen digu burgesiak, baina, egunero gure kideak haien lanpostuetara bidaliak dira osasun aholku pare batzuekin, besterik ez. Konpromezu moralei buruz hitz egiten digute, erreserbako ejarzito handiaren telefonoak orain inoiz baino gehiago jotzen dutenean, ordezko eske egoitza edo garbiketa enpresetan. Gizarte batekiko elkartasun “abstraktua”  eskatzen digute , gure grebarako eskubidea urratu eta %100eko zerbitzuak inposatzen dizkiguten bitartean. Etxean geratzea zein ederra den erakusten digute, polikiroldegi batean pilatuta lo egin behar izan ez dutenek, egun osorako jantoki sozialeko plater bat anoatu behar izan ez dutenek. Etxean *yoga* egitea gomendatzen digute, *mindfulness* eta *taichí*-a, ez dituztenek prentsako titularrak azkazalak jaten irakurtzen, haien epitafioa izango bailiran.

“Etxean geratu zaitez” erregutzen digu burgesiak; ez zaitezte kezkatu, politika jada haiek egiten dute. Burgesiak, bere soldatapeko partidu eta sindikatuekin, dekretu bidez, bertan behera utzitako eskubide eta askatasunen berrezarpena antzezten dute. Aritmetika konplexuenaren joku bat izango balitz bezala, kapitalaren teknokratek kontuak atera eta neurri salomonikoak hartzen dituzte. Baina distira duen guztia ez da progresismoa.

Egun, etxebizitzaren problematika larriagotutako gaitz bat da. Horrelako egoeretan, kapitalaren forma tiranikoena azaltzen zaigu eta proletalgoaren bizi baldintzak larriagotzen dira. Biolentzia zuzeneko formek zein dependentziazko lotura krudelenek gora egiten dute; indarkeria matxista, seme-alaben gaineko gurasoen autoritarismoa,

bere jabetza txikira gogor heltzen den ugazabaren estortsioa... Langile klaseak aurre egin beharreko zailtasunak arintzeko, gobernuak atzerapen eta luzamenduei buruz hitz egiten du, eta soilik herabeki mintzatzen da suspentsioei buruz. Duela egun batzuk alokairuen gaineko erabaki irmo bat hartu behar izan zela. Hala ere, eta Asval-eko espekulatzaileen *lobby*-ari esker, *ad calendas graecas* atzeratu egingo da. Jabe txiki eta handiz osatutako elkarte honek presioa egingo du alokairua sei hilabeteren bitartean igotzearen debekua bezalako neurriak ezerezean geratu daitezen. Bitartean, Lazora bezalako funts buitreek haien aurpegi filantropoa aurkezten eta gobernuaren erabakietara aurreratuz, alokairuen ordainketan luzamendu (moratoria) bat iragartzen dute. Baina ez ditzagun nahasi pietatea eta zuhurtasuna. Izan ere, datorren krisi garai batean bezala, funts hauek izango dira galerak jasan eta jabe txikien jabetzak bereganatuko dituztenak, haien maizterrek ez-ordaintzeengatik itota ibiliko direnenak.

Baina neurri guzti hauek – onartuta ala ez – krisiaren hondamenak nekez geldiaraziko dituzte eta ez dute denboran luzatu eta krisian sakondu besterik egingo. Estatuak 100.000 milioi euro entitate pribatuetara zuzendu ditu eta 17.000 milioi langile klasearen “gizarte *amortiguazioan*” inbertituko ditu. Eskandaluzko ehunekoetatik haratago, argi uzten du ez dela neurri salomoniko bat, eta atentzioa deitzen du diru hau nola lortu den. Gauzak horrela, funts publikoetatik ateratako partida sozialak salbuetsita, likidezia pribatutik lortu da, *ergo* bere burua zorpetuz. Beraz, nola ordainduko du Estatuak zor ikaragarri hau? Erraza, langile klasea izango da burgesiak egindako zorra ordainduko duena, hainbat sektore produktiboen berregituraketaren bitartez eta seguruenik lan-indarraren esplotazioa berrantolatzen, plusbalioaren erauzketa margenak zabaltzen saiatuz. Beste era batera esanda, zorpetze honek proletarizazio prozesu honen sakontzera eraman gaitzake, langile klaseko geruza guztiei eraginez, modu berdinean ez bada ere. Eta hemen diskurtso burgesaren zirkulua ixten da: gure berehalako baldintzak hobetzeko omen dauden milioika euroak, epe ertainera gure baldintzak okertzearen truke aterako dira. Osasun krisiarekin batera, fronte guztietan antolaturiko ofentsiba burges bat dator, eta honen aurrean antolatu gabeko proletalgo bat dugu, ez programa ezta norabide estrategiko zehatzik gabe. Gizarte berrantolaketaren aurrean, burgesia posizio onena lortzera bidean aurreratzen da eta iraganeko paktu sozialak ordezkatzen saiatzen da; zoritxarrez, gizarte paktu honetatik kanpo antolaturiko posiziorik gabe, kontsentsu zabalez lortzen du.

## 2. OFENTSIBA BURGESAREN AURREAN, DOAKO ETXEBIZITZA, UNIBERTSALA ETA KALITATEZKOA

Ofentsiba burges honen aurrean, guk doako etxebizitza, unibertsala eta kalitatezkoa aldarrikatzen dugu. Ez bihotzak eztitu nahi dituen hortzimuga idealista bat bezala, kapitalismoaren funtzionamendurako legeen ezagutzan eta teorian oinarritutako helburu estrategiko bat bezala baizik. Dakigun legez, despotismo kapitalistaren pean lanaren banaketa soziala merkantzien salerosketaren bitartez neurtzen da; horrenbestez, ekoizpen eredu kapitalistaren osotasuna balioaren legean eta konpetentzian oinarritzen da. Gainera, merkatuan salmenta askatasuna predikatzen duen unibertsaltasun burges faltsuaz gain, merkaturako sarbide hori eroste gaitasunagatik baldintzatuta dago (poltsikotan dugun diruarengatik); gaitasun hau, aldi berean, lanaren banaketa sozialean okupatzen den postuak determinatzen du, kasuan kasu. Beste modu batez esanda, balioa eta konpetentziaren legeak subiranotasun osoa daukate sistema kapitalistan. Kapitalismoaren berezko izaera honek etxebizitzaren auzia baldintzatu eta honi forma ematen dio, zeina honen forma sozial puruenean azaltzen den, hots, merkantzia forman. Beraz, ulertzen dugu soilik etxebizitza unibertsala, doakoa eta kalitatezkoa aurkeztu daitekeela kapitalaren aurka, balioaren legearekiko kontraesan errealean eta erreprodukzio soziala modu parekide eta unibertsalean bermatzeko forma bakar gisa. Hau da, hitzez-hitz:

Soilik unibertsaltasuna eta doakotasuna lortuz, etxebizitzak merkatuan trukatua izateari utziko dio, alegia, merkantzia bat izateari utziko dio eta beraz, modu eraginkorrean erregulatuta egoteari utziko dio konpetentziaren legeetatik. Baina, etxebizitza horrek kalitatezkoa izan beharko duela gehitzen dugu, eta hau ez da gehigarri hutsal bat. Sistema kapitalistan, hipotesi sinple modura, baldintzak eman ahalko ziren doako etxebizitza unibertsala bermatzeko, baina beti ezberdintasunak egongo dira honen nolakotasunean. Langileak produkzioan duen postuaren arabera, adibidez, kalitate handiago edo txikiagoko etxebizitzak lortuko lirateke eta gainera etxebizitza soldataren parte izaten jarraituko luke, zeharkako forman bada ere. Beste era batera esanda, langilearen erreprodukziorako oinarrizko baliabideen merkatzeak edo hauen doakotasunak lan-indarraren debaluazioa ekarriko luke, eta horrenbestez, sistema kapitalistaren erreprodukzioaren sakontze bat. Horregatik, baliabideen doakotasuna eta unibertsaltasuna exijitzeaz gain, hauen kalitatea ere nahi dugu, konpetentziaren eta balioaren legeekin kontraesanean sartzeko daukan modu bakarra

delako, lan-indarra prezio baxuagoan saltzera bultzatzen eta lan kapitalistaren banaketa gero eta eskala handiagoan erreproduzitzen duten legeekin kontraesanean sartzeko modu bakarra, hain zuzen.

Halaber, erreprodukzio soziala modu parekidean bermatzeko modu bakarra dela baieztatzen dugu, izan ere, proletalgoaren borroken bitartez ezarriko diren unibertsaltasuna eta berdintasuna benetan unibertsalki gauzagarriak izango dira. Izan ere, berdintasun eta unibertsaltasun burgesa, hau da, pertsona orok aberastasun sozialean merkatuaren bitartez parte hartzeko askatasuna, faltsuak eta partzialak dira, balioaren legea etikoki modu distortsionatuan islatzea baino ez dute egiten, gizarte kapitalistaren oinarrian dauden klase kontraesanak ezkutatuz. Kontrara, unibertsaltasun proletarioak ez du merkatu kapitalistarekiko sarbide parekide bat aldarrikatzen, bizi baldintzetarako sarbide berdintasuna askatasun kolektibo eta indibidualerako aurrebaldintza modura baizik. Honengatik guztiagatik, orain inoiz baino gehiago, doako etxebizitza, unibertsala eta kalitatezkoa aldarrikatzea dagokigu.

## 3. HOBEKUNTZA TAKTIKOAK PROLETARIOTZARENTZAKO

Horizonte estrategiko hori, gainera, estuki lotuta dago klase kontzientziarekin. Klase-kontzientzia da klasetan banatutako gizarte batean betetzen dugun tokiaren ulermen sakona, eta sistema horren miseriak gainditzeko modu bakarra, bizitzaren heterogeneotasunaren antolaketa positiboa dela ulertzea, egungo forma sozialak abolitu eta ordezteko prozesu baten ondoren. Hala ere, klase-kontzientzia ez da une teorikoaren bidez eskuratzen, prozesu dialektiko baten bidez baizik, zeinak borroka-esperientzia etengabe lotzen duen honen mugak ulertu eta gainditzeko beharrarekin. Proletariotzak, orain inoiz baino gehiago, borroka-esperientzia behar du, antolakuntzaren mugak *per se* ezagutzeko. Muturrez kolpatu behar du idealismo erreformistarekin, hanka sartu behar du, huts egindakoa ulertu behar du, eta, batez ere, modu independentean antolatu behar du bere eginkizun handiari ekiteko.

Kontzientzia hartze-prozesu hori, funtsean, antolaketa-prozesu bat da, eta aipatutako helburu estrategikoa lortzeko beharrezko baldintzak sortu beharko ditu. Baldintza horietako batzuk erreforma zehatzak eginez emango dira, hauen helburua proletariotzaren bizi-baldintzak hobetzea etaborroka-esperientzia handitzea delarik. Hala ere, erreformaren erabilera erreformismoaren bidearekin nahasteko arriskua dugu. Ez dugu erreformen metaketen bidez bortitza den klase ordena aldatu nahi

dutenen lozorroan erori behar. Hori esanda, gure ustez, aldarrikapen zehatzak beharrezkoak dira, eta abiarazten ditugun borroka-esperientzia ezberdinetan erabateko zentzua hartuko duten ekintzarako gidak izan behar dute. Eskaera horiek beren funtzio taktikoa galtzen dute egoera askotan, eta helburu bihurtzen dira. Uste dugu, klase-antolakunde ezberdinen zeregina praktika populistak alde batera utzi eta benetako pedagogia eta argumentazio ariketa egitea dela, langile masei aldarrikapen horien funtzio taktikoak ulertaraziz. Zeregin hori egin ezean, nekez ohartuko gara gure jardunaren mugez, eta salaketa-erreforma amaigabeko zurrunbilo batean murgilduko gara.

Gasteizko Etxebizitza Sindikatuari dagokionean beharrezkoa ikusi dugu aldarrikapen konkretuak finkatzea aurrez aipatutako arrazoiengatik. Gainera, gure ustez, etxebizitzaren problematika gure eremu geografikoan lantzen duten zenbait erakundek ezarritako helburuak ez dira nahikoak; izan ere, gutxieneko eskaerak dira eta proletariotzaren errealitate sozio-ekonomikoa ez dute haintzat hartzen. Horregatik, hurrengo faseko borroketarako gidak baino ez diren honako lan-ildo zehatz hauek aurkezten ditugu, etxebizitzari dagokionean proletariotzaren bizi-baldintzen aldekoak:

- Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren jabetzea diren alokairuen suspentsioa, Alokabidek eta Etxebidek kudeatutako alokairuez gain.

- Oinarrizko horniduren ordainketaren suspentsioa (ura, argia, gasa ...)

- Bizi-kostuak murriztea: doako garraio publikoa, premia biziko ondasunen merkatzea eta haien kalitatea lortzea, etab.

- Inolako baliabiderik ez duten pertsonentzako doako etxebizitza eta kalitatezkoa.

- Alokairuaren prezioa erregulatzea, jabe txikiei eta erakunde pribatuei dagokienez.

## 4. AUTODEFENTSA PROLETARIOA BERME BAKAR GISA

Baina hau ez da nahikoa. Oldarraldi burgesaren perspektibaren aurrean, langile klaseari gizarte-ordena berriari men egitea besterik ez zaio geratzen, zeina, ziurrenik, langile klase osoaren bizi-baldintzak okertuko dituen eta askatasun politiko eta zibilen murrizketa handiak ekarriko dituen proletarizazio-prozesu baten eskutik etorriko baita. Bitartean, progresistek, konpromiso alderdikoiei lotuta, zorraren % 17 lortu izana ospatu dute; baina gaur merke ateratzen dena bihar garesti ateratzen da.

Guk haiei begiratzen diegu, ezinean, gure egungo antolakuntza gaitasunen jakitun, baina, uste sendoz eta minez gainezka. Basakeria kapitalistaren aurrean klase elkartasunak aurrera egiten du, ordea, bat-batekotasun hori antolakuntza tresna eta tresna teorikoez armatzeko unea da. Klase autodefentsa antolatzeko unea da, bizirauteko berme bakar gisa, botere antagoniko eta independente gisara. Har dezagun gure bizitzaren kontrola.

Gasteizko Etxebizitza Sindikatuak lanean jarraituko du langile klasearen eta langileentzako gaitasunak metatzeko prozesu amaigabe honetan. Burgesiarentzat ezinezkoa dena nahi dugu – kalitatezko etxebizitza doakoa eta unibertsala –, eta bizitzaren antolakuntza komunistarentzat posibilitate bakarra dena.

*Nada es imposible, todo se organiza.*

Gasteizen, 2020ko martxoaren 28an.